



ETXARRI ARANAZKO UDALA  
Kale Nagusia 10 (KP 31820)  
Tef. 948460004  
udala@etxarriaranatz.com  
www.etxarriaranatz.com

# EDIKTUA

## ALKATEAREN DEDIKAZIOA

Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen 75. artikuluan eta Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 13. artikuluan agindutakoan oinarriturik, Udaleko kontu hartzailea kontsultaturik, Udalaren ezaugarri bereziei erreparatu ondotik, Udalbatzak aho batez honako hau erabaki du:

Lehena.-Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena alkatearen dedikazio osoa kentzea. Erabaki honek gaurtik aurrera izango du indarra.

Bigarrena.-Eneka Maiz Ulaiar alkateordeari dedikazio osoa jartzea bihartik aurrera, 2015eko apirilaren 14tik aurrera, hain zuzen.

Jarduneko alkateak lanaldi osoa izanen du, hau da, 35,40 ordu astean. Bestalde, 29.374,24 euroko soldata gordina jasoko du urtean, hamabi hilabetetan banatua, eta aparteko bi paga, 2.098,16 euro gordinekoa bakoitza. Zenbateko horiei legeak agindutako atxikipenak aplikatuko zaizkie, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Gizarte Segurantzako langile kuota kontuan izanik. Era berean, Udalak bere gain hartuko du enpresa kuota ordaintzea.

Alkatearen ordainsariak urtero eguneratuko dira KPIren igoeraren arabera, organo eskudunak bestelako igoerarik ezartzen ez badu.

Hirurrena.-Gizarte Segurantzaren Diruzaintzako Lurralde Bulegoan eskatzea Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena jaunari ateratzeko edo BAJA emateko eta Eneka Maiz Ulaiar andreari legediak agindutako moduan

Laugarrena .-Erabaki honen berri ematea Udalaren Kontu-hartzaitzari.

Bosgarrena.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki oholean argitaratzea.

Etxarri Aranatz 2015eko maiatzaren 14an  
Alkateordea: Eneka Maiz Ulaiar

